



HAL
open science

Zildoeko Perutxenekoko euskal predikuak (XIX. m.): aurkezpena eta ikerketaren lehen emaitzak

Ekaitz Santazilia

► To cite this version:

Ekaitz Santazilia. Zildoeko Perutxenekoko euskal predikuak (XIX. m.): aurkezpena eta ikerketaren lehen emaitzak. ASJU (Donostia) Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" , 2022, 56 (2), pp.219-243. 10.1387/asju.23959 . artxibo-04248809

HAL Id: artxibo-04248809

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-04248809v1>

Submitted on 18 Oct 2023

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.



Distributed under a Creative Commons Attribution - NonCommercial - NoDerivatives 4.0
International License

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA
VASCA «JULIO DE URQUIJO»

International Journal of Basque Linguistics and Philology

LVI (2)

2022



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

© «Julio Urkixo» Euskal Filologia Institutu-Mintegia
Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»
«Julio Urkixo» Basque Philology Seminar Institute
© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISSN: 0582-6152
e-ISSN: 2444-2992
Depósito legal / Lege gordailua: BI - 794-07

Zildozko Perutxeneko euskal predikuak (XIX. m.): aurkezpena eta ikerketaren lehen emaitzak¹ *Basque sermons from Perutxena in Cildoz (19th c.): Presentation and first results of the research*

Ekaitz Santazilia*

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

ABSTRACT: In this work, I present a 19th-century Basque sermon collection from the Perutxena house in Cildoz/Zildotz (Ezcabarte, Navarre) and provide some guidelines for its examination. After describing it, I show that this scattered collection actually constitutes a single corpus. Moreover, I identify the likely authors and provide some biographical data in order to find out when and where these sermons were preached. Then, I identify some of the bibliographical sources employed by the authors when producing the texts. Afterwards, I highlight the significance of researching the language and linguistic variation in the corpus. Finally, I claim that, including this collection, the abundant Basque preaching texts during that time in Navarre constitute a text genre in itself.

KEYWORDS: Sermons; history of Basque; Basque texts; Cildoz/Zildotz (Ezcabarte); Unzu/Untzu (Juslapeña); Navarre.

LABURPENA: *Lan honetan Zildozko (Ezcabarte, Nafarroa) Perutxena etxetik ateratako XIX. mendeko euskal sermoi-sorta aurkeztu dut, eta etorkizunean hura ikertzeko gidalerroak eman. Deskribatu ondoren, sakabanaturik egon den corpusa bakarria dela erakutsi dut. Gainera, egileak zein izan daitezkeen iradoki, datu biografikoak eman ditut, eta predikuak non eta noiz erabili zituzten argitu.*

¹ Esker zorretan naiz Enrike eta Itziar Diez de Ultzurrun Sagalàrekin, artxiboan miatzen egindako lanagatik, familia-funtsa begiratzeko emandako erraztasunagatik, eta testu honi egindako oharrengatik. Eskerrik asko, orobat, lan hau arretaz begiratu duten bi ebaluatzaileei. Lan hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak diruz hornitutako “*Monumenta Linguae Vasconum* 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca” proiektuaren barnean dago (PID2020-118445GB-I00).

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Ekaitz Santazilia. Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila - Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP). Arrosadiko campusa, z/g (31006 Iruñea). – ekaitz.santazilia@unavarra.es – <https://orcid.org/0000-0003-1158-821X>

Nola aipatu / How to cite: Santazilia, Ekaitz (2022). «Zildozko Perutxeneko euskal predikuak (xix. m.): aurkezpena eta ikerketaren lehen emaitzak», *ASJU*, 56 (2), 219-243. (<https://doi.org/10.1387/asju.23959>).

Jasoa/Received: 2022-10-05; Onartua/Accepted: 2022-11-02. Online argitaratua / Published online: 2022-11-11.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © 2022 Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (UPV/EHU)



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

Gero, testuak idazteko egileek erabili zituzten iturri bibliografiko batzuk identifikatu ditut. Ondotik, darabilten hizkera eta corpus barmeko hizkuntza-bariazioa ikertzearen garrantziaz aritu naiz. Azkenik, bilduma hau gaineratuta, garai hartako Nafarroako erdialdeko euskarazko sermoigintza oparora genero beregaina dela aldarrikatu dut.

HITZ GAKOAK: sermoigintza; euskararen historia; euskal testuak; Zildotz (Ezkaabarte); Untzu (Txulapain); Nafarroa.

1. Sarrera

Pedro Diez de Ultzurrun Etxarte (1924-1994, ik. Barandiaran 1996) euskaltzale iruindarra zenaren funtsean,² Zildozko (Ezkaabarte) Perutxenetik ateratako dokumentu zahar zenbait daude, han baitzituen jatorria eta askaziak. Paper horien artean, euskarazko prediku sorta bat dago, ustez etxe hartako seme batek edo batzuek idatzia XIX. mendearen lehen laurdenean edo erdian (ik. Irigarai 1966).

Gainera, sermoi sorta hori Irigarai familiaren funtsean (ik. Santazilia 2022a, 2022b) daudenekin bat datorrela ikusi ahal izan dut; alegia, horiek guztiek bilduma handi bakarra osatzen dutela.³

Corpus horrek badu euskararen historiarako interesik, bai eta ere zailtasunik, hainbat alorretan:

1. Corpus sakabanatua, ikertu gabea eta —hein handi batean— argitaragabea da, pasarte batzuk kenduta (ik. Irigarai 1966, 1975; Diez de Ultzurrun 2018).
2. Iruñe ondoko euskararen idatziak dirateke, baina edizioa eta hizkuntza-azterketa egin behar dira.
3. Tamaina aldetik, garaiko corpus homogeneousik zabalena da segur aski, Lizarraga Elkanokoaren lanen gibeletik.
4. Testuek ez dute egiletza eta data garbirik, nahiz eta zenbait helduleku ematen dituzten duda horiek ebazteko. Egile bakarra duten ere dudatzekoa da.
5. Bildumako testu bakar batzuk, argi eta garbi, ez dira corpus honen parte; beste lekutakoak eta egilerenak dira.
6. Testuen antolaketak eta katalogazioak arreta merezi dute, bereiz sailkatutako testu zenbait, menturaz, prediku beraren zati direlako.
7. Testuen iturriak zein diren argitu beharra dago.
8. Bariozioa dago testuen artean, dela ortografian, dela ezaugarri linguistikoetan, eta horren zergatia argitu behar da (egiletza, garaia, iturria...).
9. Honek guztiak irakurketa soziolinguistikoa behar du. Argitu behar da nola eta zergatik osatu zen halako bilduma mamitsua urte gutxian, Bonapartek hegonafarrera deitu hizkeran, eta zein lotura duen corpus honek gero eta zabalagoa den Iruñe inguruko testu corpusarekin.

² Iruñeko Diez de Ultzurrun-Sagalà familia, Pedroren seme-alabak hain zuzen, dira funtsaren zaindariak gaur egun.

³ Pedro Diez de Ultzurrunek (1960: 378) ere bazekien Angel Irigarai zuen sermoi sorta eta berea funts beraren parte zirela, eta Satrustegik (1995) ere hala jaso zuen.



1. irudia

Zildoeko Perutxena, 2022an.
(Arg.: E. Santazilia)

Dударик gabe, auzi horiek guztiak behar bezala ebaztea ez da artikulu bakarrerako langaia. Lehen saio honetan, *corpusa* aurkeztuko dut (§ 2); ondotik, egileez eta datez orain arte dakidana bilduko dut (§ 3); zenbait predikuren atzean dauden iturri bibliografikoak azalduko ditut gero (§ 4), eta hizkerari buruzko zertzeladak emanen, jarraian (§ 5). Hondarrean ondorioak (§ 6), erreferentziak (§ 7) eta eranskina heldu dira.

2. *Corpusa: seiak bat*

Aitzinatu dudan bezala, sei sortatan sakabanatuta dagoena inoiz bilduma bakarra izan dela garbi dago: tankera bera dute denek (idazkera, estiloa, papera, garaia, hizkuntza...). Sei sorta horien lehen katalogazio-, zenbatze- eta deskribatze-saioa egin dut. Lehenik, sorta bakoitzari kode bana esleitu (DU, DUSAT, DUIRE, DUIR, IR eta IRCI), eta gero prediku edo prediku-zati bakoitzari zenbaketa korrelatiboa eman diot (adibidez, DU-001, DU-002, eta abar.). Testu bakoitzaren ertzean arkatzez idatzi dut signatura, jatorrizko dokumentuetan. Hona sorta bakoitzaren deskribapen laburra:

- DU (Diez Ultzurrun): 11 dokumentu. Diez de Ultzurrun-Sagalà familiaren bilduma da. Zildoizko Perutxenean agertu zen prediku sorta hau eta, familiak dioenez, Isidoro Diez de Ultzurrun etxe hartako seme kaputxinoaren eskuetan izan ziren. Ikertzeko dago horietakoren bat hark idatzi zuen. Sorta honetan, DU-009k bestelako letrakera eta hizkera du, ipar-mendebalderagokoa, segur aski.
- DUSAT (Diez Ultzurrun-SATrustegi): 6 dokumentu. Pedro Diez de Ultzurrun zendu ondoren, Enrike eta Itziar seme-alabek aurreko sortatik ateratako prediku batzuk utzi zizkieten Jose Maria Satrustegiri. Satrustegiren heriotzean, apez arruazuarraren familiaren eskuetan gelditu ziren, eta Euskaltzaindian gero. Berriki itzuli dira Diez de Ultzurrun-Sagalà familiarenera. DUSAT-003 gutunazala da, barruan bi prediku dituena: DUSAT-003-1 eta DUSAT-003-2.
- DUIRE (Diez Ultzurrun-IRigarai-Ezkabarte): 7 dokumentu. Aingeru Irigaraik zuen sermoi sorta. Haren seme Jose Angel Irigaraik gorde izan ditu gutunazal batean. Ezkabarteko predikuak direla dio gutunazalak. DUIRE-007k arras letrakera diferentea du.
- DUIRC (Diez Ultzurrun-IRigarai-Cildoz): 16 dokumentu. Aingeru Irigaraik zuen sermoi sorta. Haren seme Jose Angel Irigaraik gorde izan ditu gutunazal batean. Zildoizko predikuak direla dio gutunazalak. Gutun horretan Makirriango dotrina ere egon bide zen inoiz, baina orain ez dago hor.⁴ Sorta honetan Hiriberri-Aezkoakoa datekeen sermoia ere badago (DUIRC-014). DUIRC-007 sermoia ere desberdina da: XVIII. mende hondarrekoa izan daiteke.
- IR (IRigarai): 82 dokumentu. Aingeru Irigaraik zuen sermoi sorta. Sermoi zati batzuk solte daude. Horiei ere kodea eman zaie banaka, eta etorkizun-

⁴ Orain diez de ultzurrundarrek dute, Angel Irigaraik Pedro Diez de Ultzurruni eman ziolako 1958. urtean (Diez de Ultzurrun 1960).

nean zatiok nolabait batu daitezkeen ala ez aztertu behar da. IR-001 ez da sermoia, Eritzeko 1863ko dotrina bat baizik. IR-029 ez da predikua. Mendi-rik 1811ko otsailaren 7an sinatutako dokumentua da, Ozueko (Untzu gaur egun) alkateari igorria, frantses tropen kontra egin nahi dutenek herrian babesa dutela dioena, eta traidoreok salatzeke aginduz. IR-052 beste itxura bateko sermoia da: 1862ko data du eta 1932an Irigarai Beltzuntzen jaso zuela dirudi, hala idatzirik ageri baita. IR-078 predikua ere bestelako letrakera du.

- IRCI (IRigarai Cildo): 7 dokumentu. Sorta hau geroago agertu da Jose Angel Irigaraiaren etxean. Katalogatu (eta, beraz, zenbatu) ez ditudan beste dokumentu batzuekin batera zegoen: Lesakako bando baten kopia; Lesakako bi euskal testu administratibo; Gurutzebide baterako kantuak; Zildoeko Perutxeneko liburu bat, gurutzebidea eta otoitzak dituen; Fermin Irigaraiaren testu bat, eta gipuzkeraz dagokeen otoitz bat (ik. horien deskribapen zehatzagoa Santazilia 2022b lanean).

Perutxeneko seme Isidoro Diez de Ultzurrun kaputxinoa, Mendizabalen desamortizazioaz geroztik, sortetxera itzuli zen eta 40 urtez izan zen Zildoeko apez (ik. § 3.3), 1880an komentura itzultzeko aukera izan zuen arte. Orduan, paperak sortetxean gelditu ziren; tartean, euskarazko testu eta liburu zenbait, baita hizpide ditugun sermoiak ere (Diez de Ultzurrun 1960).

DUIRE, DUIRC, IR eta IRCI sortak (dena 112 dokumentu) Angel Diez de Ultzurrun Perutxeneko etxeko jaunak Angel Irigarairi eman zizkion 1933. urte aldera (Diez de Ultzurrun 1960: 377), eta, ondoren, Jose Angel Irigarai semeak gorde zituen. Orain, ordea, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian daude, Jose Angel Irigarai familiaren funtsa artxiboari dohaintzan eman dionez geroztik (ik. Santazilia 2022a, 2022b). DU eta DUSAT sortak ez bide zituen Irigarai eraman, eta Perutxenean gelditu ziren. 1957 aldera, Angel Diez de Ultzurrunen seme Kamilok, Perutxeneko premuak, bere lehengusu Pedro Diez de Ultzurruni eman zizkion gelditzen ziren sermoi, testu eta liburuak (Diez de Ultzurrun 1960: 378), eta Pedroren seme-alaben eskuetan daude une honetan.

3. Egiletza eta datatzea

Aipatu dudanez, garbi dago sermoiak Zildoeko Perutxenetik atera zirela, Isidoro Diez de Ultzurrun kaputxinoaren dokumentuen artetik, baina horrek ez du baitezpada esan nahi Isidoro izan zela sermoi horien egilea.

Sermoiak ez daude sinaturik, baina bada egiletza eta datak zehazteko frogarik.

3.1. Iturri zuzenak

Zenbait prediku bestelako gutun eta agirien ifrentzuan eta ertzetan idatzirik daude, papera berrerabiliz eginak. Dokumentu horietan bada izenik eta datarik irakurgai. Hala, DUSAT-001en zati bat Auzan 1828ko uztailearen 4an datatutako gutun batean idatzia dago. Baltasar Zubiria(?) delakoak Jose Manuel Urtasun Untzuko abade eta lehengusuari igorritakoa da. DUSAT-003-1en zati bat ere gutun batean

dago, Zildoeko behin-behineko abadeari igorrita, 1818ko apirilaren 29an.⁵ DUSAT-003-2 sermoiaren zati bat Puiutik Untzuko abadeari igorri gutunaren binperrean dago. Beste zati bat Manuel Ezkurra Soltxagako abadeak 1805eko ekainaren 30ean izenpetutako ziurtagirian dago idatzita. Orri hori bera gerora Untzuko bataio-liburuan gehitu beharreko pasarte baten zirriborro gisa baliatu zen: 1806an sortutako ume bati dagokio. Gainera, Zildoeko apezari 1836an idatzitako gutunean ere beste zati bat dago. DU-006ren atal batek Untzuko abadeari 1821eko otsailaren 9an zuzendutako agiria du euskarri, eta beste atalak, 1824ko urriaren 30ean Nabazko parrokoari zuzendutako agiria. DU-008 Jose Manuel Urtasun Untzuko abadeari Otsakartik 182[.] urteko irailaren 17an zuzendutako gutunean dago idatzita. Beste zatia 1821eko irailaren 27an Otsakartik Untzuko abade Manuel Urtasuni igorri gutunean dago. DUIRE-002 sermoia 1851ko⁶ martxoaren 27an idatzia da, Berriobeitiko bikario Juan Bernardo Etxeberriak Ezkabarteko kabildoko dekanari zuzendutako gutunaren ifrentzuan. IR-036 Arreko Trinitateko kofradiaren zordunen zerrenda batean idatzi da. Zerrendak Juan Manuel Urtasunen sinadura darama, Arreko Trinitateko kofradia laikoko abadea baita. IR-061 predikua Manuel Urtasun apezari, Zildoeko biztanleari, 1826ko urriaren 7an arma bat erabiltzeko luzatutako lizentzian idatzita dago. IR-072 Arreko Trinitateko goi karguei zuzendutako paper batean idatzita dago. IRCI-001ek erdian papertxo du eta horren gibelean “Manuel de Urtasun [...] Abad de Unzu” irakur daiteke. IRCI-002 paper puska batean idatzitako sermoi zatitxo da eta Juan Manuel Urtasun Untzuko abadearen izena irakur daiteke. IRCI-003 ere papertxo batean idatzitako sermoi zatia da, Joseph Manuel Urtasun Untzuko parrokoaren izena dakarrena.


Izenez eta karguez gain, datak ere aitzinatu ditut aurreko pasarteetan, XIX. mendearen lehen erdikoak denak. Horiei gainera dakieke IRCI-007 1819ko Errege Zedula baten gibelean idatzitako sermoi zatia dela eta DU-010 1855eko ekainaren 16an inprimatutako dokumentua duela euskarri.

Hori gutxi balitz bezala, sermoi frankoren ertzean noiz predikatu ziren esaten zaigu eta, ikus daitekeenez (ik. 2. irudia), prediku batzuk behin eta berriz erabili ziren. Ertzetan idatzitako data horien artean, 1810ekoa da goiztiarrena (IR-082), eta 1879koa, ordea, berriena (IRCI-005).

Bada, beraz, nondik abiatu testuen egiletzan eta datatzean argi apur bat ekartzeko. XIX. mendearen lehen erdia dugu nagusi ardatz kronologikoan. Gainera, han eta hemen ageri zaizkigu Jose Manuel Urtasun eta Juan Manuel Urtasun izenak, Zildotz eta Untzu herrietako parrokiak, Ezkabarteko kabildoko burutza eta Arreko Trinitateko kofradia laikoko abadetza ere. Datorren atalean zehaztuko dut horrek denak Isidoro Diez de Ultzurrunekin duen lotura.

⁵ Data ez da argi eta garbi irakurtzerik.

⁶ Urtea dudazkoa da, ez baita ongi irakurtzerik.



2. irudia

Sermoi hau zortzi urtetan bederen predikatu zen.
(NEAN, Irigarai funtsa, 1. kaxa, 1. karpeta(x)oa, IR-017)

3.2. Apezak Zildotzen eta Untzun

Lehenik eta behin, ikusagun XIX. mendearen lehen erdi aldera nor egon zen apez Txulapaingo Untzun eta Ezkabarteko Zildotzen (ik. 1. taula). Horretarako aski dugu Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboan dauden parroketako sakramentu-liburuetara jo-tzea, jakiteko zein apezek jaso zituen idatziz bataioak, heriotzak, ezkontzak eta beste-lakoak, garaian garai. Han-hemenka, Elizaren tribunaleko auzibideek ere ematen di-gute daturik.

1. taula
Apezak Zildotzen eta Untzun

Urtea	Zildotz	Untzu
	Jose Olaitz	* ⁷
	Behin-behinekoa	*
	Santiago Iturriria (behin-behinekoa), Orrioko abadea	*
1761	Juan Urtasun	*
1762		
1784	Martin Felix Ezkurra (behin-behinekoa), Untzuko abadea	Martin Felix Ezkurra
1786	Matias Orrio	Juan Jose Larraiotz (behin-behinekoa), Ollakarizketako abadea
1800		
1801		
1809	Frantzisko Joakin Untziti (behin-behinekoa), Orrioko bikarioa	Jose Manuel Urtasun
1810	Jazinto Makaia	
1814	Jose Manuel Urtasun (behin-behinekoa)	
1814	Jose Espartza	
1817	Jose Manuel Urtasun (behin-behinekoa), Untzuko abadea	
1819	Juan Manuel Urtasun	Jose Manuel Urtasun & Isidoro Diez de Ultzurrun & Antonio Aginaga
1842		
1844		
1851	Isidoro Diez de Ultzurrun & Juan Manuel Urtasun	Antonio Aginaga
1856	Isidoro Diez de Ultzurrun (behin-behinekoa)	*
1879	Zeledonio Belasko (behin-behinekoa)	*

⁷ Izartxoia dagoen kasuetan, ez dut datua kontsultatu.

Hala, Zildotzen, herriko seme Juan Urtasunek hartu zuen parrokia 1761ean (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2189, 16. zk.), 1784ko otsaila arte. Untzuko parrokiar arduratzen zen Martin Felix Ezkurra izan zen ondoren behin-behineko parrokoa Zildotzen, 1785ean Matias Orrio zildoztarrak behin betiko kargua hartu zuen arte (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2479, 11. zk.). Orrio 1809ko urria arte egon zen han, eta behin-behineko apez baten ondotik, 1810eko azaroan Jazinto Makaia nabaztarrak hartu zuen Zildoizko parrokia (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2695, 25. zk.). Jose Espartza etorri zen gero, 1814ko irailetik 1816ko abendura. Ondoren, Untzuko parrokoa, Juan Manuel Urtasun izeneko, ageri zaigu behin-behinean, 1819ko urtarrila arte, eta urte bereko uztailean Juan Manuel Urtasunek hartu zuen behin betiko kargua urte luzez (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2723, 10. zk.); 1855eko ekainaren 8koa da azken bakarkako sinadura parrokiako liburuetan. Urte batzuk lehenago, Migel Isidoro Diez de Ultzurrun ageri da sinatzaile Juan Manuelekin batera tarteka, eta 1856ko abendutik 1879ra bitarte, Isidoro da Zildoizko parrokoa, behin-behineko karguan betiere.

Untzun, ordea, Martin Felix Ezkurra dugu apez 1762ko maiatzetik 1799ko otsaila bitarte. Juan Jose Larraiotz Ollakarizketako abadea behin-behinean egon zen 1800eko otsailetik 1801eko otsailera bitarte, eta Jose Manuel Urtasunek hartu zuen behin betiko abadetza 1801eko irailetik bederen (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2653, 9. zk.), 1843ko irailera. 1842ko ekainaren 19tik, Isidoro Diez de Ultzurrunekin batera edo Antonio Aginagarekin batera sinatzen du. Aginaga behin-behineko abadea da 1844ko irailetik, eta aurrerago behin betiko karguan ageri da.

Berrerrabilitako paperetatik erauzitako datuak ikusita, Zildoizko eta Untzuko apez hurrenkera begiratuta, eta predikazio-urteei erreparatuta (1810 eta 1879 artean), nahiko garbi irudika daiteke Jose Manuel Urtasun > Juan Manuel Urtasun > Isidoro Diez de Ultzurrun ibilbidea. Jarraian emanen ditudan datu biografiko apurretan erakutsiko dudanez, lehen biak anaiak ziren, eta hirugarrena, iloba.

3.3. Perutxeneko semeak

3.3.1. *Jose Manuel Urtasun Lakidain*

Zildoizko bataio liburuan ikus daitekeenez, Jose Manuel Urtasun 1773ko azaroaren 26an sortu zen Perutxenean. Juan Jose Urtasunen eta Manuela Mikaela Lakidainen seme gehiena izan zen. Aitaxi-amatxiak, ordea, Zildoizko Juan Urtasun eta Barbara Leranotz zituen aitaren aldetik, eta Matias Lakidain eta Juana Maria de Larunbe beltzuntzearrak amarenetik. Aitaren aldeko aitaxik eginarazi zuen gaur egun arte iraun duen etxea Jose Manuel jaio baino bost urte lehenago, etxeko atalburuak argitzen duenez (ik. 3. irudia).⁸

⁸ Juan Urtasun izeneko apeza ageri zaigu herrian 1761 eta 1784 urteen artean (ik. 1. taula). Ez dut ikertu, baina oso litekeena da hura mintzagai ditugun urtasundarren askazia izatea eta, beharbada, etxea eginarazi zuena.



3. irudia

Perutxeneko atalburua.

(Arg.: E. Santazilia)

Horretarako azterketa gairiditu ondoren, Albako dukesaren patroitzapekoa zen Aldatz-Etxabakoizko parrokia eskuratu zuen 1798ko maiatzaren 9an (IEA, Apezpikutegiko auzitegia, Auzibideak, 2778, 8. zk.). 1801eko uztailaren 13an joan zen Untzuko parrokiara, bestea utzita (IEA, Apezpikutegiko auzitegia, Auzibideak, 2656, 12. zk.). Gainera, 1818ko martxoaren 7tik behin-behineko apez ibili zen Zildotzen, Jose Espartza apeza (Orikaingo Sanpaulorena etxekoa berau) ongiezik zegoe-lako. 1818ko apirilaren 6an hil zen Espartza 32-33 urterekin, eta sorterrian ehortzi zuten (IEA, Apezpikutegiko auzitegia, Auzibideak, 2723, 10. zk.). Orduan utzi

zuen Jose Manuelek Zildozko behin-behineko parroko kargua. Badakigu jakin Nabatzen ere izan zela **behin-behineko parroko, hango sakramentu-liburuan agiri bat** sinatu zuelako, 1825eko uztailaren 14an.⁹ Bestalde, hainbat urtez argitaratutako *Guía del Estado Eclesiástico Seglar y Regular* delakoan, “Juan Jose Urtasun, abad de Unzu” izeneko bat (izena gaizki emanik, hain segur), Anueko behin-behineko artzipreste karguan ageri zaigu 1818 eta 1835 urteen artean bederen.¹⁰

Gainera, urte haiek Frantziarekiko gerra-urteak izan baitziren, 1812an Untzun bizi ziren 15 eta 50 urte bitarteko gizonen errolda egin zen, banan-banan datu biografiko eta fisionomikoak biltzen dituen (NEAN, Estatistika, 11. sorta, 14. zk.). Zerrenda horretan lehena dugu apeza: 36 urteko¹¹ Manuel Urtasun, Zildotzen jaioa baina Untzun dagoena, Zildozko Juan Jose Urtasun etxejabe laborariaren eta Mikaela Lakidain defuntuaren semea. Altueraz txikia bide zen, kolore sanokoa, kopetazabala, begi urdinkarak zituen, sudurra eta ahoa arruntak, eta ilea eta bizarra urdintzen hasiak.

Jose Manuel 1844ko ekainaren 1ean hil zen, 70 urte, 6 hilabete eta 26 egunekin, eta hil horren 3an ehortzi zuten Zildotzen, eliza ondoko kanposantuan. Heriotza-agiri horrek berak dioenez, urte batzuk zeramatzan burua galduta: “por hallarse ha mucho tiempo turbado la facultad intelectual ò como estasiado”. Horrek azaltzen du zergatik ageri diren Untzuko parrokia-liburuetan 1842tik aurrera Jose Manuel Urtasun anaia eta Antonio Aginaga sinatzaile, harekin batera edo haren ordeiz.

3.3.2. Juan Manuel Urtasun Lakidain

Aitzinatu bezala, Jose Manuelen anaia zen. Perutxenean sortua, 1786ko irailaren 17an, Zildozko bataio-liburuan ageri denez. Bistakoa da honek ere Juan Jose Urtasun eta Manuela Mikaela Lakidain zituela guraso: sei seme-alaben artean gazteena, hain zuzen.¹² Anaia Juan Jose izan zen bataioko aitabitxietako bat. Atarrabian konfirmatu zen, 1787ko apirilaren 17an (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditak, 310. k., 18. zk.).

Untzun bezala, Zildozko gizonen 1812ko errolda ere badugu (NEAN, Estatistika, 10. sorta, 59. zk.). Horretan esaten zaigu 21 urte dituela,¹³ laboraria dela, Zildotzen jaioa eta han bizi dena, altueraz baxua, kolorez beltzarana, kopeta eta aho arrunte-

⁹ Naski horregatik ageri zaigu DU-006 sermoiaren zati bat 1824ko urriaren 30ean Nabazko parrokoari zuzendutako agiri batean: agiria Urtasuni berari zuzenduta zegoelako, edo han behin-behinean zegoenean paper hori berrerabili zuelako.

¹⁰ Honako hau dio *Gran Enciclopedia de Navarra* (Nafarroako Aurrezki Kutxa 1990): “ANUÉ, Arciprestazgo de: Perteneciente a la diócesis de Pamplona. En la Edad Media comprendía Roncesvalles, Burguete, Lanz, la cendea de Ansoáin y los valles de Erro, Esteribar, Anué, Ulzama, Atez, Odieta, Olaiibar, Ezcabarte y Juslapeña. En 1567 se le incorporó la parroquia de Valcarlos, hasta entonces de la diócesis Bayona. En 1863 se le segregaron los arciprestazgos de Roncesvalles (con Valcarlos, Burguete y Erro) y Esteribar (con Ezcabarte y Ansoáin); y en 1958 Juslapeña pasó al arciprestazgo de la Cuenca. Desde 1971 forma parte de la zona pastoral vascoparlante”.

¹¹ Orduan 39 urte zituen. Agian errolda urte batzuk lehenago egina da, frantsesaldiaren hasieran.

¹² Jose Manuel (1773), Juan Jose (1775), Juana Frantziska (1778), Josefa Lorentza (1780), Mígel Jose (1783) eta Juan Manuel (1786) dira anai-arrebak.

¹³ Aurrekoan bezala, datua ez da zuzena: 1812an 26 urte zituen.

koa, begi-nabarra, sudurluzea, eta ile eta bizar beltzekoa. Ageri denez, orduan ez zen oraindik apeztua. Gramatika ikasketak Garesen egin zituen eta 1818an jaso zuen lehen tontsura (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditenteak, 310. k., 18. zk.). Iruñeko San Migel seminarioan filosofia eta teologia morala ikasten zebilela, 1818an lehen tontsura galdegin zuen eta, Zildoizko abadetza esleituta, 1819an ordena txikiak eta subdiakono ordena jaso zituen (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditenteak, 151. k., 10. zk.), diakono izan zen urte hartan berean (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditenteak, 154. k., 17. zk.), baita apez ere (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditenteak, 98. k., 4. zk.).

Artean Untzun parroko zebilen Jose Manuelek anaia gazteari utzi zion, beraz, behin-behinean zuen Zildoizko parrokia, 1819. urtean (IEA, Apezpikutegiko auzitegia, Auzibideak, 2723. k., 10. zk.).

IR-036 sermoiak esaten digunez, Arreko Trinitateko abadia laikoko kapilaua izan zen omen, baina ez dut horri buruz informazio gehiago biltzerik izan.

Juan Manuel 1855eko irailaren 17an hil zen, 69 urterekin. Zildotzen ehortzi zuten eta zeukan guztia Josefa Lorentza Urtasun arrebari utzi zion, sortetxea barne. Arreba sarri hil zen, ordea, 1855eko azaroaren 2an, testamenturik gabe.

3.3.3. *Isidoro Diez de Ultzurrun Urtasun*

Zildoizko bataio-liburuak dio 1807ko apirilaren 4an jaio zela, Perutxenean. Aurkeko bien iloba zen. Aita Saldiseko Txurikoreneko Migel Karlos Diez de Ultzurrun zuen, Zildotza ezkondua lehen aipatutako Perutxeneko Josefa Lorentza Urtasun Lakidainekin. Senar-emazte horien ondorengo zuzenak dira egun Perutxenean bizi direnak.

Ezkabarteko errolda bati esker (NEAN, Estatistika, 12. sorta, 22. zk.), 1817an Perutxenean bizi zirenen izen deiturak zein ziren jakin dezakegu. Hala, Juan Jose Urtasun premu alargunduarekin batera bizi zen Jose Manuel Urtasun semea, apeztukoa zena, alaba Josefa Lorentza eta haren senarra, aipatu Migel Karlos. Frantzisko Goldaratz, Juana M.^a Makirriain eta Mikaela Irisarri ere han bide ziren, baina ezin azal dezaket zergatik. Esan bezala, Migel Karlosen eta Josefa Lorentzaren semea zen Isidoro, eta erroldan ageri da, umeen artean, "Isidro (*sic*) Ulzurrun" izenpean. Gainerako umeak Manuel, Josefa eta Pablo ditugu, Isidororen anai-arrebak, hain zuzen.

Isidoro Kaputxinoen ordenan sartu zen. 1832ko ekainaren 9an, 25 urte zituela, korista izateko habitua hartu zuen Cintruenigoko komentuan,¹⁴ eta ordutik nobizio korista zenak 1833ko ekainaren 10ean egin zuen botuen profesa irmoa, komentu berean.¹⁵ Iruñeko komentuan bizi izan bide zen gero (Diez de Ultzurrun 1960), Mendizabalen desamortizazioak (1836-1837) handik lekutu eta sortetxera eramanean zuen arte.

¹⁴ *Libro en que se asientan las recepciones de los novicios, que reciben el habito en el Convento del Noviciado de esta Prov[incia] dela Inmaculada Concepcion de los Padres Capuchinos del Reyno de Aragon y Navarra.* Enrike Diez de Ultzurrunek eman dit aktaren irudia.

¹⁵ *Libro de actas del noviciado de Cintruénigo y Pamplona. Y profesiones solemnes de Pamplona. Años 1793-1834. Años 1880-1889.* 239. or. Enrike Diez de Ultzurrunek eman dit aktaren irudia.

Parrokia-liburuei begira, ikus dezakegu 1842an Jose Manuel Urtasun osabarekin eta Antonio Aginagarekin batera aritu zela behin-behinean Untzuko parrokian, azkenak kargua hartu arte. 1855ean beste osabarekin, Juan Manuelekin, dugu Zildoizko parrokian behin-behinean, 1856an bakarrik sinatzen hasi zen arte, behin-behineko karguan, betiere. 1879an utzi zuen hango parrokia eta komentura itzuli, 1888an hil zen arte.

Laburbilduz, Juan Jose Urtasunek eta Manuela Mikaela Lakidainek izandako sei seme-alaben artean, sermoiekin lotura dutenak lehena eta azkena izan ziren, baita Josefa Lorentzaren seme eta aurreko bien iloba Isidoro ere. Sermoiak elizan predikatzeko zirenez, parrokiaren batean ibili ziren garaikoak behar dute izan. 2. taulan jaso dugu bakoitza zein denbora-tartetan aritu zen zeregin horietan.

2. taula

Apez bakoitzaren lan-urteak gutxi gora-behera

	Urteak
Jose Manuel Urtasun	1801-1842 ¹⁶
Juan Manuel Urtasun	1818-1854/1855
Isidoro Diez de Ulzurrun	1842-1879

Predikuak hiruren eskuetatik pasatu zirela ikusita, ebatzi behar da zein eskuri dagokion bakoitza eta batzuek ageri dituzten moldaketak eta zuzenketak nork eginak diren.

4. Letrakera

Predikuak Jose Manuel Urtasunen eskukoak izan zitezkeela iradoki zuen Irigaraik (1966: 262-263),¹⁷ baita Matias Orriorenak ere, 1786tik aurrera Zildoizko apez izan zenarenak. Orrioren letrakera Perutxenekoa bestelako testu batzuetan identifikatu dudalakoan nago, baina esango nuke ez dagoela haren eskuko sermoirik bilduma honetan. Bestalde, 1826 eta 1878 artean datatu zituen Irigaraik, baina, bestelako azalpenik eman gabe, eta ez dakit zein izan daitekeen horretarako arrazoiak; izan ere, Irigaraik gordetako sortan badira lehenagoko data daramaten predikuak. Gainera, orain badakigu zaharrenak 1826koak badira, nekez izan daitezkeela Matias Orriorenak, Orrio 1810eko otsailaren 17an hil baitzen bat-batean, Zildoizko hildakoen liburuan jaso zenez.

Sermoiak letrakera eta parrokia-liburuetako agirien sinatzaileenak alderatzeko saiotxoak egin dut azaletik, nork zer idatzi zuen jakiteko. Lan hori sakon eta sistematikoki egin beharra dago, baina ez da ematen duen bezain erraza: Jose Manuelek eta Juan Manuelek letrakera aski antzekoa dute; Isidororena, ordea, bestelakoa da (cf. 4., 5. eta 6. irudiak).

¹⁶ Kargua 1844 arte izan bazuen ere, gogoan har burua galdua zuela aspaldixko.

¹⁷ Untzukotzat du, baina zildoiztarra zen.

tizado el 1^a citado Juan Tomas Saxosia, y enana
 Martina de Cildor ya difunta, Vecinos de este
 lugar; maternos Lorenzo de Oreien, y Juana Jo-
 sefa de Errea Vecinos de Sarasa; y para que
 conste hice este asiento en Zildor a veinte y
 nueve de Mayo de mil ochocientos diez y ocho
 a Diez y ocho
 D. ¹ Jose Man. Urtasun Abad de
 Unzu e Int. de Zildor

4. irudia

Jose Manuel Urtasunen letrakera
 (IEA, Parrokia-artxiboak, 657. k., 4. zk., 74. or.)

de Isidor, ya dif. y enana
 merec. y adif. Materno. Juan Martin de Buzutun, y enana
 Catalina de Urtasun ya difuntas, el natural de Cildor, y elle
 de Osocain, duena miera, que fueron de la casa de
 Ocainene de este lugar de Cildor; y para que conste hice
 este asiento firmado de mi mano el die veinte y seis del mes
 y año u. sup.
 D. Juan Manuel de Urtasun
 Abad de Cildor

5. irudia

Juan Manuel Urtasunen letrakera
 (IEA, Parrokia-artxiboak, 657. k., 4. zk., 84. or.)

Testu gehien-gehienak Jose Manuelen eskukoak direlakoan nago,¹⁸ nahiz eta, esan bezala, patxadaz begiratu behar den. Adibide gisa, erka bitez 4. irudiko Jose Manuelen letrakera eta sermoietan ugarien ageri zaigun 7. irudikoa. Ertzetan idatzitako predikazio-urteek (ik. 2. irudia) Jose Manuelen testuak Juan Manuelek eta are Isidorok ere erabili zituztela darakutsate.

¹⁸ Orain esan dezakegu, segur aski, *Ezconcerca doaciñei emandaquioqueten aviso gaia* izeneko Untzuko edo Zildozko testutxo anonimoaren gibelean ere (Santazilia 2013) urtasundarrak daudela.

Del bairriano Natural de Villanueva y residente en ¹⁸²⁸
 Torves a quien advece el porvenir espiritual y obli-
 gaciones que contraigo: Abuelo por parte de Tomas Be-
 baice ya difunto Natural que fue de Utraz, y Hermano
 de Cenoz tambien difunto Natural que fue de Cia:
 Maternos Martin Galdi Natural de Urdians, y Bea-
 nanda Olascoa Natural de Gaxiain
 Y para que conste here este asiento firmado
 de mi mano hoy dia Nuebe del mes y año en supra
 Isidoro de Cildoz
 Abad Pns.^a Cildoz

6. irudia


Isidoro Diez de Ultzurrunen letrakera
 (IEA, Parrokia-artxiboak, 657. k., 4. zk., 128. or.)

... como van mozeau de becatu equites viciosa
 edo costumbrea izandocinuela demborarembates,
 eta erpalimberaquezu averigueta cez frecuencia
 requi exorces cinan, guti gorabera, artebat bene-
 batequi, illabete bat berzoatequi, ez erare cembat
 demboras inau n zuen costumbre gaisto anec, ex-
 ranen duzu: Jauna, cierto nago ondelacs viciosa
 izan muela, baña etiaquetec aseguratu cembat dem-
 boras inau n zuen, exnan dezaguetena da oimbe-
 ce vretatic ezela paratues, edo ondelacs dembo-
 retatic paratues cela. Etu da Tang^{ac} baquearen
 autorea den beraba manacen diciena, ceñen le-

7. irudia

Ustez Jose Manuel Urtasunena den sermoia
 (NEAN, Irigarai funtsa, 1. k., 3. karp., IRCI-005)


Paratestuek ere laguntzen dute honetan. Gogoan izan sermoi batzuk bestelako paperen binperrean idatzi zirela, eta horietan datak eta izenak ageri direla. Hala, 8. irudiko sermoi-zatia Juan Manuel Urtasunek sinatutako papera berrerabiliz idatzi zen. Letrakerak erkatuta ere, bere eskukoa dela dirudi.



8. irudia

Juan Manuel Urtasunen testua
(NEAN, Irigarai funtsa, 1. k., 1. karp., IR-036)


Orobat gertatzen zaio, esaterako, 1855. urtean inprimatutako agiri batean idatzitako sermoiari (ik. 9. irudia). Jose Manuel hila zen ordurako eta Juan Manuel urte hartan berean hil zen, irailan; beraz, bere azken testuetatik izan daiteke honakoa.



9. irudia

1855eko agiri batean idatzitako predikua
(Diez de Ultzurrun-Sagalà familiaren funtsa, DU-101)


Dokumentu batzuek gehiketak, zuzenketak eta moldaketak dituzte. Horiek nor-ekin zituen banan-banan argitu behar da; izan ere, kasu batzuetan, egileak berak eginak dira baina, beste batzuetan, esku desberdinak ere izan daitezke. Ustez Jose Manuelek izkiriaturako testu batzuetan, esaterako, ezin da baztertu Juan Manuelek edo Isidorok gerora eskua sartu izana, kontuan izanik sermoiak denek ibili eta erabili ziztuztela. 10. irudiko adibidean, esate baterako, ematen du testu nagusia Jose Manuelek egin dela, baina ondotik anaia Juan Manuelek egin dituela emendioak.



10. irudia

Moldaketak predikuetako batean
(NEAN, Irigarai funtsa, 1. k., 1. karp., IR-054)

Ez ahatz, gainera, arras letrakera diferentea duten predikuak ere badirela bilduman, eta horien egiletza argitzeko dagoela. Ikus horren adibidea 11. irudian.



11. irudia

Bestelako egikera eta letrakera duen predikua
(NEAN, Irigarai funtsa, 1. k., 1. karp., IR-078)

5. Iturriak

Halakoetan ohi bezala, prediku hauen egileek ere beste autoreen lanak erabili zituzten bereak ontzeko, nahiz eta ez ohi zuten, salbuespenak salbuespen, iturria berriaz aipatzen. Pasarte batzuen jatorria zein izan daitekeen aurkitzeko saiakera egin dut, azaletik eta sistematikotasunik gabe, baina ediren dut emaitzarik, baita 1. eranskinean bildu ere.

Aspaldi, Irigaraik (1975) berak iradoki zuen Mendibururen eragina egon zitekeela testu hauen gibelean, eta sermoigileak ere hala aitortzen du kasu bakar batzuetan. Nik ere *Jesusen Amore-nequeei dagozten cembait oioitz gai* (1760) lanaren emaria badagoela egiaztatu ahal izan dut han-hemenka. Nolanahi ere den, sermoiek ez dute beti Mendibururen testua hitzez hitz kopiatzen: zenbait egitura eta pasarte antzekoak dira, baina ez berdinak. Mendibururen testuak egilearen hizkerara hurbiltzeko saiakerak, beraz, arreta beregaina merezi duke. Beste egileen erdarazko testuen itzulpenak ere franko dira. Ez dakit, ordea, itzulpenak zuzenean egileek egin zituzten, ala tarteko beste iturriak egon ote den.

Gainerakoan, erdarazko testuetatik hitzez hitz itzuliak dira sermoi edo sermoizati zenbait: dela latinetik, dela gaztelaniatik. Sermoietan berriaz aipatzen den autorea da Pedro Calatayud. Aipatzen den orri zenbaketari eta gaiari begira, *Doctrinas prácticas que solía explicar en sus misiones...* lana da erabili dena, 1797ko edizioan. Liburu hau gutxienez beste hiru sermoiren atzean dagoela egiaztatu ahal izan dut. IR-008 sermoian Jean Croiseten obra aipatzen da, eta segur aski *Año cristiano o ejercicios devotos...* izeneko itzulpena da autoreak eskuetan izan zuena, baina ez dakit zein urtetako ediziotan. Baliteke Iruñean Longasek inprimatutako edizioa izatea (Iturbide 1997). Bestalde, Miguel de Santanderren *Doctrinas y sermones para misión...* obra da beste zazpi sermoi edo sermoi-zatiren iturria. Zein edizio erabili zen, ordea, ez dut begiratzerik izan. Climenten *Pláticas dominicales* ere identifikatu dut bi kasutan, eta Josep-Ignatius Clausek latinez idatzitako *Spicilegium catechetico-concionatoriumen* edizioaren bat dago beste bost sermoiren gibelean bederen. Azkenik, Fr. Francisco de la Madre de Dios garestarrak 1705ean Iruñean inprimatutako *Theatro Trinitario* azpimarratu nahi nuke. Sermoigileak berak aipatzen du behin, baina gutxienez beste sermoi baten jatorrizko testua ere bada. Aurreko obrekin edo autoreekin alderatuta, zabalkunde apalagokoa dugu lan hau, eta berori erabiliko dut itzulpen lanaren erakusgarri:

Lastimoso caso! Lance estrecho! y riguroso ahogo es la memoria de el Juycio Universal, q[ue] oy nos pinta la pluma de San Lucas. Precederàn señales espantosas, y horribles al día de el Juycio. Vendra el Hijo de Dios con espantosa Magestad, à juzgar à los mortales. El sol, luna, y estrellas han de apagar sus resplandores, en señal, de que Dios ha encendido su divino enojo. (Madre de Dios, 1705: 1)¹⁹

* * *

Caso lastimosoa! lance erchia! eta neque rigurosoa da juicio universalaren memoria, cein pintacen baitigu egungo egunean S[a]n Lucasec. Juicioaren egunari alcinduco zaizquio sañale izugarriac. Etorrico da Jang[oicoare]m (*sic*) simea magestade espantoso batequi, mortaleac juzgazera, Yguzquiac, Yllarguiac, eta Yzarrac guibelatuco dute be-

¹⁹ Ese luzeak labur eman ditut, eta laburdurak hedatu. Gainerakoan, jatorrizkoari lotu natzaio.

ren arguitasuna, mateco entendazera, etzi Jang[oico]ac ychequi, edo vistu duela bere colera divina. (IR-019)

Diez de Ultzurrunek (1960: 378) esaten digunez, Perutxeneko bibliotekan ba omen ziren, gainera, Mendibururen *Jesusen biotzaren debocioaren* bigarren edizioa (1751), eta Mikelestorenaren *Cerura nayduenac ardezaquean vide erraza* lanaren zatia, 1754ko edizioa, latinezko eta gaztelaniazko beste liburu zenbaitekin batera. Gainera, Larramendiren hiztegiaren (1745) liburuki bat ere bazen (gaztigua, Enrike Diez de Ultzurrun). Euskarazko liburu horiek guztiak Diez de Ultzurrun-Sagalà familiak ditu orain. Euskarazko lan horiek sermoietan islarik ba ote duten begiratu beharko litzateke. Edonola ere, lehen begiratuan, Larramendiren lexikoaren isla nabarmenik ez dut sumatu.

Horrez gain, bai Jose Manuel Urtasun, Untzuko apeza, bai Juan Manuel, Zildo-zkoa, sermoi-liburu batean heldu den harpidedunen zerrendan ageri zaizkigu: Felipe de la Virgen del Carmenen *El párroco. Pláticas doctrinales y morales para todos los domingos y fiestas principales del año...* (1828) liburuaren 3. liburukian, hain zuzen. Jose Manuel, bestetik, Francisco Alvaradoren *Cartas críticas...* (1825) liburuaren harpidedunen artean dago, 4. liburukian heldu den zerrendak jasotzen duenez.

Laburbilduz, sistematikoki begiratu behar da ea aipatu obra horietan dagoen sermoi gehiagoren iturria, eta iturri berriak aurkitzen diren. Gainera, zorrotz begiratu behar da sermoi bakoitzaren zein zati atera den zein iturritatik. Perutxenean zegoen biblioteka eta egileak harpidetuta zeuden liburuak aintzat hartu behar dira iturriak bilatzeko tenorean, eta iturriok beste euskal predikarien obretan ere ageri diren begiratu.²⁰ Iturria zein modutara erabili den jakin behar da: hitzez hitzeko itzulpena dugun, moldaketa, balizko inspirazioa, edo bestelakorik. Kontuan izan ez dakigula, momentuz, testuak zuzenean erdaratik itzuli ziren, itzulpenak beste norbaitek egin zituen, ala Mendibururen bidez ailegatu diren, esaterako. Sermoi bildumek edizio ugari izan ohi zituztenez, zein edizio erabili ziren egiaztatu behar da. Horrek sermoien egiletza-urtea argitzeko *post quem* data eman dezake. Azkenik, predikuaren gaiaren eta hautatutako iturriaren arteko loturarik baden begiratu behar da, eta sermoigile bakoitzak iturri jakin batzuk erabili zituen.

6. Hizkeraz bi hitz

Ezbairik gabe, euskararen historiaren ikerketarako, sermoietan erabilitako hizkera aztertzea da urratsik garrantzitsuena. Alabaina, testuen taxuzko transkripzio eta ediziorik gabe, urrun gaude oraindik zeregin horretatik, eta ohartxo batzuk baizik ez ditut eginen.

Egileen jatorria eta lantokia ikusita, Ezkabarteko edo Txulapaingo hizkeratzat hartu izan da testu hauek darabiltena (Irigarai 1966, 1975). Bonaparteren etiketak erabiliz, Hegoaldeko goi nafarrera dela ere esan izan da. Baina zero-hipotesi hori ezaugarri-zerrendetan oinarritu behar da; hortaz, hizkuntza-azterketa sakona eskatzen dute predikuok.

²⁰ Clausen *Spicilegium*, esaterako, Lizarraga Elkanokoak ere erabili zuela badakigu (Zabalza 2005). Gainera, Martin Ibero Izuko abade goñibartarrak ere, xviii. mendearen bigarren erdian, Carabantes eta Calatayud aipatzen ditu bere sermoietan, Andrade, Barcia, Chía, Echeverz, Garcés, Lyra, Manni, Martínez de la Parra eta Nierembergekin batera (Ondarra 1996: 263). Azken hauek gure sermoietan ere badiren begiratzea ez da erokeria.

Corpusaren tamaina ikusita, desberdintasunetan oinarritutako hizkuntza-azterketa egiteari deritzot interesgarrien. Ongi dago esatea testuetan *erran* eta *bertze* ageri direla, eta *ez esan* eta *beste*, baina horrek deus gutxi aldatzen du eremu hartako mintzoaz orain arte dakiguna. Haatik, corpusak darakutsan barne-bariazioa aztertzetik —eta horren kausak bilatzetik— franko ikas dezakegu, besteak beste, muga lektalez, eredu linguistikoez, polimorfismoaz eta, funtsean, soziolinguistikaz (ik., besteak beste, Camino 2003).

Jarraian corpusaren barne-bariazio horren adibide batzuk eman ditut. Zerrenda ez da, edozein gisaz, ez osoa, ezta adibide guztiak biltzen dituen ere.

6.1. Grafia

- Txistukari frikari bizkarkaria adierazteko, <z> grafemaren aldean, <tz> ageri da batzuetan. IR-055 predikuan esaterako, *ez* eta *etz*, biak ditugu, ezezko adberbiorako.

6.2. Fonologia

- Sinkopa ez da sistematikoa. IR-009n, *atera* eta *atra* biak ditugu (*ateratu* ere bai, DU-001en), eta IR-012n, *berla* eta *bereala*.
- Bokalen artean flap delakoa galtzen da kasu batzuetan, baina ez beti. DUIRE-006k *cirelaric* eta *tigularic* du eta IR-070en *armaic* dago *jangoicoric* formarekin batera.
- Beheko bokalaren asimilazioa edo “Rui araua” azkarra da testu batzuetan, morfema- eta hitz-mugak gaintitzeraino, eta bakanagoa beste batzuetan. *Mandamentue* dago IR-004n eta IR-047k, adibidez, *gure baiten* eta *gure baitan* dakartza. Urrunago doaz *duzune* (DU-003) eta *au de* (IR-004), DUSAT-001eko *becatua* eta *penitencia* bezalakoekin alderatuta. Ikertu behar da, baina badirudi Juan Manuel Urtasunek anaiak baino gehiago islatzen dituela asimilazioak, bien testuetan ediren badaitezke ere.
- Nafarroako mintzo askotan *bat* > *at* dugu bokal zenbaiten ondotik. Predikuetan ere bietarik dugu: *sabioat* (IR-070), *arratoat* (DU-001) - *falso batequi* (IR-006).
- [*Ez* + *d*-] > [*Ez* + *t*-] bilakatzen da kasu batzuetan, baina ez beste batzuetan: *eztuzu* (IR-009) - *ez duzule* (IR-011).
- Aferesiari doakionez, *maten* eta *ematen* ditugu IR-007n, baita *zauceco* eta *eza-guceco* ere, IR-070n. Adizkietan ere, *tugun* - *ditugun* txandaketa dago IR-025 predikuan.
- Geroaldiko aspektu-marka *-n-z* amaitutako aditzetan *-en* ohi da, baina *-ain* ere badago: *izanen derela* (IR-025) - *joain ceren* (IR-55).

6.3. Izen morfologia

- *G-* duten erakusleak ditugu batzuetan, baina gehienetan ez dago halakorik: *dembora gau* (DU-003) - *divino hau* (DUIRE-004).
- Komitatiboan *-ki* eta *-kin* daude, are elkarren ondoan ere: *andiarequin* - *sanduarequi* (IR-012); *garrequi edo atzaparrequin* (IR-070).

- Partizipioak eratzeko hiru modu bederen ikusi ditut, baina azkena da ohikoena: *enfadatute* (IRCI-006) - *engañetue* (DUIRE-001) - *batayaturic* (IR-007).

6.4. Aditz morfologia

- Iraganeko -nrik gabeko adizkiak daude, baita -ndunak ere. *Arquicen ce* (IR-008) eta *eracutsi cigu* (IRCI-006) adibideekin batera, IR-010 sermoiko *icasi zue* dugu, prediku berak bi lerro beherago *artu zuen* badakar ere.
- *Izan* aditzaren Nor saileko adizkietan, -i-l-e- txandaketa dago: *dere* (IR-003) - *dire* (DUSAT-003-1). IR-055eko adibidea aski argigarria da: *diranetan ere arquituco cerela*.
- *Izan* aditzaren Nor saileko adizkiek -i- dutenean, erlatibozko marka hartzean, txandaketa dago, are testu berean ere: *diran* - *diren* (IR-007).
- Adizki tripertsonaletan, absolutiboa 3. pertsona plurala denean, -it- zein -zki- da pluralgilea: *ditigun* (DUIRE-007), *citioia* (DU-011) - *dizquirot* (IR-007), *cizquiGUN* (IR-071).
- Adizki bipertsonal iragankorretan, absolutiboa 3. pertsona plurala denean, ez da beti -z- ageri: *tute* (IR-071), *cituten* (IR-047) - *dituztenac* (IR-011), *bacituzten* (IR-071).

6.5. Sintaxia

- Objektu zuzena genitiboan dago kasu bakan batzuetan, aditza nominalizaturik dugunean: *mundu onen juzgacera* (IR-071) - *Jang[oi]co bacarbat adoracera* (DUIRE-001).

6.6. Hiztegia eta aldaerak

Horra, bestalde, hiztegi eta aldaera kontu zenbait, hurrenkera alfabetikoan emanak. Ikus daitekeenez, kasu batzuetan bi aukerak testu berean ditugu.

- *bezala* (DU-003) - *becala* (IR-004)
- *cergatican* (IRCI-006) - *ceren gatic* (DUSAT-001)
- *creazalleac* - *creazalearen* (IR-070)
- *daus* (IR-047) - *deus* (IR-12)
- *ecusten* (IR-003) - *icusten* (IR-12)
- *ertean* - *artean* (IR-006)
- *guibela edo atcera* (IR-071)
- *guztis* (IR-055) - *gucis* (IR-12)
- *mereji* - *merciceco* (IR-004)
- *orain* - *orai* (IR-003)
- *ssarrite*²¹ (IR-070) - *jarrita* (IR-071)
- *aurretic* (IR-055) - *alcinetic* (IR-071)

²¹ <ss> digrafoak sabaiurreko txistukari frikaria adierazten du.

Txandaketa hauen guztien gibelean zer ote dagoen jakitea ez da aise. Elkarren ondoan dauden baina ibar banatakoak diren Untzu eta Zildotzen arteko isoglosen errua izan daiteke; gainera, txandaketa batzuk balizko esku diferenteekin batera doazen jakitea ere beharrezkoa da, ala egile berak garai diferenteetan idatzi izanaren ondorio. Nolabait azaldu behar da testu beraren barneko bariazioa ere: sinonimia eta polimorfismo kontua izan daiteke batzuetan, ala Mendibururen edo hurbilagoko beste idazleen (Lizarrraga Elkanokoa, Martin Ibero eta beste) etorria ere bai, egileak horietatik edaten badu. Ezin ahatz daiteke, gainera, ezaugarri zenbaiten prestigioa, beste formen aldean. Horrekin batera, ezaugarrien maiztasuna neur daiteke, eta ikusi ezaugarri batzuen eta beste batzuen presentziak ala faltak elkarren arteko loturarik duen. Buruenik, testu batzuek dituzten moldaketak nork eta zergatik egin zituen jakitea ere interes handikoa da.

7. Ondorioak

Lan honetan, Zildoeko Perutxena etxetik ateratako XIX. mendeko euskal prediku sorta izan dut hizpide. Corpus hori hein batean ezezaguna eta eskuragaitza izan zaie ikertzaileei, jatorrizko dokumentuak han eta hemen sakabanaturik egon baitira, eta paperok eskuetan izan dituzten ikertzaileek aspaldi eta bakan baizik ez baitituzte aipatu. Zati handi bat esku publikoetara pasatu denaz geroztik, jatorrizkoak non dauden argitu dut, corpus osoaren batasuna aldarrikatu, eta bestelako jatorria edo egile-tza duketen sermoi bakanak ere identifikatu ditut. Horrekin batera, corpora behar bezala ikertzeko bideak zein izan daitezkeen aitzinatu dut.

Perutxenetik atera zenetik prediku-sortak egindako bidea zein izan den deskribatu dut, eta nola zatitu zen sei ataletan. Aingeru Irigarairen eta Pedro Diez de Ultzurrunen eskuetan egon zirela ikusi dugu, eta J. M. Satrustegik ere izan zituen gutxi batzuk.

Testuek berek ematen duten informazioa erabilia eta grafiak alderatuta, sermoi gehienak Jose Manuel Urtasunenak izan daitezkeela ematen du: XVIII-XIX. mendeetan bizi izan zen Perutxeneko semearenak hain zuzen, Untzun parroko egon zen garaian eginak. Beste batzuk haren anaia txikiak, Juan Manuelek, idatziak dirudite, Zildoeko parrokan zebilela. Bien ilobak, Isidoro Perez de Ultzurrunek, jarauntsi zituzkeen gero. Hiru apezten biografian sakontzerik ere izan dut, eta badirudi sermoi horiek Untzuko parrokan erabili zirela lehenik, eta Zildoekoan gero.

Sermoi horien iturri batzuk identifikatu ditut. Mendibururen euskarazko predikuez gain, latinezko eta gaztelaniazko beste autore batzuen obrak ere erabili zituztela garbi dago, baina iturrien ikerketan aurrera egiteko bide berriak urratu beharko lirarteke etorkizunean.

Hizkeraren azterketari ekin baino lehen, edizio filologikoa egin beharra dago. Ezaugarri linguistikoak deskribatzearekin batera, ezaugarri horien corpus barneko bariazioa ikertzetik euskal predikugintzaz gauza asko ikas daiteke.

Labur esanda, bariazio geografikoaren eta ezaugarri dialektalen deskribapenak duen interesetik harago, corpus hau soziolinguistika historikoa eta generoaren soziologian sakontzeko ekarpen handia da. XVIII. eta XIX. mendeetan Nafarroa erdialdean han eta hemen sakabanaturik dugun sermoitegi zabala —orain honako hau ere gehituta— ezin zaio zoriari egotzi: politika jakin baten emaitza da, eta horrek, ezinbestean, batasuna ematen dio generoari. Emeki-emeki, definitzen joan beharko genuke zein diren testugintza horren gibelean dauden autoreak, autoritateak, ereduak,

iturriak, itzulpen-estrategiak, prestigiozko aldaerak, zirkulazio-bideak eta, funtsean, barne-loturak. Horretaz guztiaz jabetuta baino ezingo dugu euskararen iragana behar bezala deskribatu eta azaldu.

8. Erreferentziak

- Alvarado, Francisco. 1825. *Cartas críticas*. Madril: E. Aguado.
- Barandiaran, Asier. 1996. *Pedro Diez de Ulzurrun (Bidegileak, 7)*. Gasteiz: Eusko Jaurleritza.
- Calatayud, Pedro. 1797. *Doctrinas prácticas que solía explicar en sus misiones...* Madril: Benito Cano (4. edizioa).
- Camino, Iñaki. 2003. *Hego-nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Carabantes, Jose. 1717. *Pláticas dominicales y lecciones doctrinales...* Juan Sanz: Madril (P. Islaren itzulpena).
- Claus, Joseph Ignatius. 1738-1740. *Spicilegium catechetico-concionatorium...* Augsburg: Matthias Wolffen alarguna.
- Climent, Josef. 1799. *Pláticas dominicales que el ilustrísimo señor don Josef Climent, obispo de Barcelona predicó...* Bartzelona: Bernardo Pla.
- Croisset, Jean. 1782. *Año christiano o exercicios devotos para todos los días del año*. Iruñea: Longás.
- Diez de Ultzurrun, Enrike. 2018. Un sermón de Ezkabarte sobre la vendimia. *Ze Berri* 133. 13.
- Diez de Ultzurrun, Pedro. 1960. El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828. *Euskera* 5. 377-403.
- Irigarai, Aingeru. 1966. Nuevos documentos para el estudio del vascuence alto navarro meridional. In Juan Maluquer de Motes (koord.), *Problemas de la prehistoria y de la etnología vascas*, 261-267. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa.
- Irigarai, Aingeru. [A. Apat-Etxebarne]. 1975. Navarro - meridional deitu euskara motaz zerbait. *Diario de Navarra* 1975-08-28. 14.
- Iturbide, Javier. 1997. La edición navarra del “Año Christiano” de Jean Croiset. Un testimonio de venta de libros por suscripción en el siglo XVIII. *PV* 210. 191-222.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latín*. Donostia: Bartolomé Riesgo y Montero.
- Madre de Dios, Francisco de la. 1705. *Theatro Trinitario adornado de sermones para la dominica del año...* Iruñea: Juan Joseph Ezquerro.
- Mendiburu, Sebastian. 1751. *Jesusen biotzaren debocioa*. Iruñea: Joseph Ezquerro.
- Mendiburu, Sebastian. 1760. *Jesusen amore-nequeei dagozten, cembait otoitz-gai...* Iruñea: Juan Antonio Castilla (3 liburuki).
- Mikelestorena, Jose. 1754. *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza*. Iruñea: Martin Joseph Rada.
- Nafarroako Aurrezki Kutxa. 1990. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa.
- Ondarra, Frantzisko. 1996. Juan Martin de Ibero (1729-1783): Izuko parroquia (1754-1783), *FLV* 72. 235-267.
- Santander, Manuel. 1802-1803. *Doctrinas y sermones para misión...* Madril: Administración del Real Arbitrio de Beneficencia.
- Santazilia, Ekaitz. 2013. Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat. *FLV* 116. 91-120.

- Santazilia, Ekaitz. 2022a. Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (I. dokumentu argitaratuak). *FLV* 133. 229-257. <https://doi.org/10.35462/flv133.9>.
- Santazilia, Ekaitz. 2022b. Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (II. dokumentu argitaragabeak). *FLV* 134. 471-490. <https://doi.org/10.35462/flv134.7>.
- Satrustegi, Jose Maria. 1995. Pedro Diez de Ulzurrun, sendagilea (1924-1994). *Euskera* 40(1). 585-587.
- Virgen del Carmen, Felipe de la. 1828. *El párroco. Pláticas doctrinales y morales para todos los domingos y fiestas principales del año...* Zaragoza: Francisco Magallón.
- Zabalza Seguín, Ana. 2005. El tratado sobre el matrimonio de Joaquín de Lizarraga (1782). In Ignacio Arellano & José María Usunáriz (arg.), *El matrimonio en Europa y el mundo hispánico*, 211-223. Madril: Visor Libros.

9. Eranskina

3. taula

Prediku zenbaiten iturriak

Predikua	Iturria(k) ²²
IR-004	Alboan idatzirik: "Calatayud tom 1. pag. 34.". Pasarte horretan zera dio sermoiak: "Vio-zeco gogortasun au deicen du S[a]n Gregorioc <i>peccatum invisceratum</i> ". Calatayuden <i>Doctrinas Prácticas</i> da aipatzen duen lana, 1797ko edizioan. Jarraian, zera dator: "con lo demas para el asunto, hasta aqui el Teatro Trinitario". <i>Theatro Trinitario</i> segur aski Fr. Francisco de la Madre de Diosen lana da (1705).
IR-008	Sermoiak hala dio: " <i>Bienen a proposito p[ar]a el asunto las dos consideraciones de Croiset de la Dom[inic]a de pasion</i> ". Croissetek frantsesez idatzitako obraren gaztelaniazko itzulpena da, <i>Año cristiano ó ejercicios</i> izenekoa.
IR-010	Hasiera Clausen <i>Spicilegium catechetico-concionatorium</i> lanetik itzulia (<i>Dominica IV. Quadragesimae. Conceptus XVIII. De ignominiosa coronatione Christi Domini</i>).
IR-012	Pasarte bat Mendibururen <i>Jesusen Amore-nequeei dagozten cembait otoitz gai</i> (1760) liburutik hartua (I. lib., I. otoitz-gaia, § II). Beste bat Santanderren <i>Doctrinas y sermones para mision</i> lanetik itzulia (4. sermoia).
IR-013	Zati batzuk Clausen <i>Spicilegium catechetico-concionatorium</i> lanetik itzuliak (<i>Dominica passionis. Conceptus XIX. De sententia mortis contra Christum lata</i>). Mendibururen <i>Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait otoitz gai</i> (1760) lanaren emaria ere ikusten da (IV. lib., LX. otoitz-gaia, § I).
IR-017	Pasarte bat Santanderren <i>Doctrinas y sermones para mision</i> lanetik itzulia (3. sermoia).
IR-019	Fray Francisco de la Madre de Diosen <i>Theatro Trinitario adornado de sermones...</i> (1705) lanetik itzulia (I. liburukia, I. sermoia: <i>de el primer domingo de adviento</i>).
IR-020	Pasarte bat Santanderren <i>Doctrinas y sermones para mision</i> lanetik itzulia (III. liburukia, 11. sermoia).

²² Edizio-urte zehaztu ez dudanean, egileak zein edizio erabili zuen ikertu ez dudalako da. Ondorioz, halakoetan, nik erabilitako edizioa aipatu dut erreferentzien atalean; ez, halaberharrez, sermoigileak berak erabilitakoa.

Predikua	Iturria(k)
IR-027	Santanderren <i>Doctrinas y sermones para misión</i> lanetik itzulia (13. sermoia: <i>de la gloria</i>).
IR-033	Lehen partea Climenten <i>Pláticas dominicales</i> lanetik itzulia (XLVI. platika: <i>para la dominica quarta de quaresma</i>).
IR-038	Santanderren <i>Doctrinas y sermones para misión</i> lanetik itzulia (17. sermoia: <i>de ánimas</i>).
IR-044	Alboan idatzirik: “se halla en el sexto tomo de Calatayud, pag. 274”. Baina, gaia bera iza-nik ere, euskal testua ez dator bat horrekin. Ik. beherago, IRCI-005.
IR-045	Dudazkoa, baina metaforaren bat Mendibururen <i>Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait oititz gai</i> (1760) liburuan ageri dira (i. oititz-gaia, § III).
IR-049	Calatayuden <i>Doctrinas prácticas que suele explicar en sus misiones...</i> lanetik itzulia (II. liburu-a, 12. tratatua, 2. dotrina).
IR-055	Zati batzuk Clausen <i>Spicilegium catechetico-concionatorium</i> lanetik itzuliak (<i>Dominica 1ª quadragesimae, Conceptus XV. De tristitia & agonia Christi Domini in horto</i>).
IR-062	Carabantesen <i>Pláticas dominicales y lecciones doctrinales de las cosas más esenciales</i> lanetik itzulia (II. lib., xc. lezioa: <i>Para el domingo vigesimoquarto después de Pentecostés: de la muestra, y que cada uno la tendrá conforme viviere</i>).
IR-073	Mendibururen <i>Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait oititz gai</i> (1760) liburutik hartua (i. lib., XXI. oititz-gaia).
IR-075	Clausen <i>Spicilegium catechetico-concionatorium</i> lanetik itzulia/moldatua (<i>Dominica 3ª quadragesimae, Conceptus XVII. De crudelissima flagellatione Cristi Domini</i>).
IR-077	Climenten <i>Pláticas dominicales</i> lanetik itzulia (II. lib., XLIV. platika: <i>para la dominica tercera de quaresma</i>).
DUIRE-006	Santanderren <i>Doctrinas y sermones para misión</i> (1. dotrina).
DUIRC-003	Calatayuden <i>Doctrinas prácticas que suele explicar en sus misiones...</i> lanetik itzulia (II. liburu-a, XI. tratatua, II dotrina).
DUIRC-008	Hasiera Santanderren <i>Doctrinas y sermones para misión</i> lanetik itzulia (<i>Parábola del hijo pródigo. Domingo 1º de Quaresma</i>).
DUIRC-009	Zati batzuk Clausen <i>Spicilegium catechetico concionatorium</i> lanetik itzuliak (<i>Dominica 2ª Quadragesimae. Conceptus XVI. De alapa Christi Domini in domo Caiphae</i>).
DU-001	Calatayuden <i>Doctrinas prácticas que suele explicar en sus misiones...</i> lanetik itzulia (I. liburu-a, VI. tratatua, III. dotrina).
DU-005	Sermoiaren bigarren zatian, zera dio: “vease sobre el particular el tom. 2 de Mendiburu pag. 234”. <i>Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait oititz gai</i> (1760) lanari dagokio ²³ (XLVIII. oititz-gaia, § II). Baina ez du zuzenean Mendibururenetik kopiatzen.
IRCI-005	Predikuaren gaia Calatayudek aipatzen duela dio alboan: “tomo 6, p. 274”. <i>Doctrinas Prácticas que suele explicar en sus misiones...</i> lanaren 1797ko ediziotik itzulia (VI. liburua, I. tratatua, II. dotrina: <i>Del modo de hacer la confesión general</i>).

²³ Obra honek bi edizio izan zituen urte bertsuetan: 1759-1760. urteetan, hamaika liburukitan argitaratu zen. 1760an, ordea, hiru liburukitan. Hemen aipatzen den orrialde-zenbakia hiru liburukitako edizioari dagokio. Gainera, hori bera da Perutxenean agertu zen edizioa, egun diez de ultzurrun-sagalátarren eskuetan dagoena.

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA

"JULIO DE URQUIJO"

International Journal of Basque Linguistics and Philology

ASJU LVI (2), 2022

AURKIBIDEA / SUMMARY / ÍNDICE

GIDOR BILBAO, Arnaut Oihenarten <i>Kobla berriak</i> . Lan inprimatuen edizioak eta aleak banaka ezagutu eta aztertu beharraz, xvii. mendeko euskarazko poema aurkitu berrien kariatara / <i>Arnaut Oihenart's Kobla berriak: On the importance of understanding and analysing editions and copies of printed works, on the occasion of newly discovered 17th-century poems in the Basque language</i>	1
JOSÉ IGNACIO HUALDE, The reconstruction of Old Common Basque accentuation: Closing open issues	77
IÑIGO URRESTARAZU-PORTA, Euskara Batu Zaharraren haustura: oinarri metodologikoak eta literaturaren berrikuspina / <i>The split of Old Common Basque: Methodological foundations and literature review</i>	107
LEYRE ROJO HORRILLO, [n-/l- + herskari] taldeen bilakabide diakronikoa eta erronkariaren lekukotasuna: irudia(k) fintzen / <i>Diachronic development of the [n-/l- + plosive] consonants group and the Roncalese evidence: Revising some framework(s)</i>	143
DENNIS OTT, Contrasting contrastive-topicalization strategies	169
HODEI IRURETAGOiena ALBIZU, Izenak sortzeko atzizkiak eta literatur hizkuntzaren historia: Ubillosen dotrina eta Lubieta eta Pomier hiztegiak / <i>Suffixes to create names and the history of the literary language: The doctrine of Ubillos and the dictionaries of Lubieta and Pomier</i>	193
EKAITZ SANTAZILIA, Zildoeko Perutxenekoen euskal predikuak (xix. m.): aurkezpena eta ikerketaren lehen emaitzak / <i>Basque sermons from Perutxena in Cildoz (19th c.): Presentation and first results of the research</i>	219
MANUEL PADILLA-MOYANO, <i>Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays</i> . Ana Ürrüti (1826-1900) ebanjelista eta itzultzailearen bizitza eta gutunak / <i>Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays. The life and letters of evangelist and translator Anna Urruty (1826-1900)</i>	245
Kutixiak / Varia	
KARLOS CID ABASOLO, Euskara unibertsitate mailan atzerriko hizkuntza gisa irakastea: zorrotzasunetik malgutasunera / <i>Teaching Basque as a foreign language at university level: From rigidity to flexibility</i>	303
Liburu berriak / Reseñas / Reviews	
JÜSEF EGIATEGI (1782). <i>Aberastarzün güzién giltz bakhoitza</i> . <i>Egan</i> 75(1-2), 2022, 371 or. Manuel Padilla-Moyanoren edizio kritikoa. Sarrera: Koro Segurola (IÑAKI CAMINO) . . .	317